

Joanes Etxebarria

«Nahi badut bertsolari izan, behar dut hasi nintzen bezala, ostatukoa izan»

Hurkoa identifikatzeko dugun beharrak sortu zuen izena. Joanes Etxebarriak badu izena, badu titulua: Iparraldeko bertsolari txapelketaren finalean kantatu duen lehen zuberotarra dugu. Izenaren atzean, izana: kazetari eta argazkilari, “jakintsuagotzen gaituen zalantza orokorra” lagun.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

“Elkarrizketa niri? Beharrezkoa dea?” egin zenidan galdera. Bertso plazara ekarri duzu zeure burua, Iparraldeko txapelketan. Hortik heldu da solas hau.

Bai, bertsolaritzaren mundua ezagutzen nuelakoan... Baina kanpotik ezagutzea, edo bar-netik, bi gauza dira. Zerikusirik ez daukate. Bertsolariekin egin elkarrizketak maite ditut, iruditzen zait ikuspegi interesgarria dutela gizarteaz, Euskal Herriaz, kulturaz... Batzuekin gehiago edo gutxiago identifikatzen naiz, baina hor ez da belaunaldi konturik. Silveira asko maite dut, adibidez, harekin identifikatzen naiz. Baita Lizaso ere, Sebastian, eta haren semea, Beñat.

Eta Sebastianen aita, Beñaten aitona Joxe Lizaso?

Bertsozale amorratu bilakatu naizenean, Internet eta prentsa bidez segitu dut bertso mundua. Zuberoan bizi zarelarik, bertsoetara joateko behar dira bi ordu, Gipuzkoara joateko, Iparraldean oso gutxi baitira jaialdiak. Hemendik ez da segitzen ahal bertso mundua astebururo, eta Internet bidez entzun dut Joxe Lizaso ere. Baina beti urrundik segitu dut bertsoa.

“Bertsozale amorratu bilakatu naizenean” esan duzu...

13-14 urterekin sartu zitzaidan zaletasuna, lagun bidez: Eneritz Zabaleta eta Xumai

Murua, bereziki. Haiekin nintzen kolegioan, Kanbon, oso lagun egin ginen, eta haiek bertsoan ari, ikustera joaten nintzelarik, maitatu nuen bertsoa. Ikusi nuen bertsolaritza ez zela bakarrik zaharren gauza, izan zitekeela nire hurbileko jendearen hitza ere. Eta interesatzen hasi nintzen. Kanbon, bestalde, irakasle zen Aitor Sarasua, eta sasi-eskola muntatzen saiatu ginen Joaño Bedaxagar eta biok, baina gazte ginen, eta ez genuen aurrera egin. Eneritz eta Xumai, aldiz, ttiki-ttikitandik hasi ziren, Hendaian, eta bidea egin zuten. Guk bertan utzi genuen. Orduan ez nuen pena sentitu: saiatu ginen, ez zen atera, eta puntu.

Nortasun agiria

Joanes Etxebarria (1984, Barkoxe, Eiheraberría etxea), Kazetaritza diplomatura egina Parisen. Lan eta kolaborazioak eginak ditu hainbat hedabidetan: *Xirika*, *Xiberoko Botza*, *Gaztezulo*, *Berria*, ARGIA... Egun, *Berria* egunkariaren *Ipar Euskal Herriko Hitzan* ari da lanean, Ozazeko etxetik, Zuberoako Basaburuan. Zuberera eram zuen 2010ean, Iparraldeko bertsolarien Xilaba txapelketara, finalera heldu, eta laugarren egin zuen. Bertsolari da, kazetari eta argazkilari zorrotza denaz gain. Haize freskoa dator Zuberoatik.





Uste nuen Mixel Etxekopar bertsoa lantzen ari zela Zuberoan, ikastolako ikasleen artean.

Baliteke... Uste dut Izuran hasi zirela bertsoa lantzen, Baxenabarren, Orzibarren, baina beti ukan zituzten zailtasunak talde iraunkorra osatzeko. Gero, Zuberoan biltzen hasi ziren, eta haiekin bildu zen Xan Alkhat ere, Ernesten semea, eta ni berarekin bildu nintzen, Zuberoara etorri baitzen bizitzera. Adiskidetu ginen, jakin nuen bazela eskola hori, eta sartu nintzen. Baina hasieran, askotan egin dudau gauza: sartu, zer den ikusi, eta utzi. Ustekabean harrapatu nau oraingo bertso obsesio honek.

Barkoxen sortua. Ez da hor Piera Topet Etxahunen kantua beti presente?

Bai, baina Barkoxen kantua da tradizioa, ez bertsoa. Nire begietan, Etxahunen testuak hartzen ditudanean, bertsoak ikusten ditut, baina barkoxtarrek kantua! Eta berez, gehienak kantu dira. Tradizioa, bada. Beti entzun ditut Etxahunen kantua Barkoxeko ostatuan. Koblakari dela diote, baina zer da koblakari? Hasi nintzenean kobla kantatzen ostatuan, gehienak aho zabalik geratu ziren, ez zekitelako zer zen hura. Inprobisatzen ikustea eta! Uste dut Zuberoan Etxahun Iru-

rik mantendu zuela bertsoa plazaz plaza, eta bera eta gero tradizio hori hemen nonbait galdu zela.

Zuk berreskuratua, nonbait. "Zuberotar bertsolaria" diote zutaz ari.

Taldeak berreskuratua! Bada hor gauza bat aski bitxia, zer en nik ez baititut erroak Zuberoan. Xiberotarra sentitzen naiz, baina Bilbon ditut erroak, hangoak dira gurasoak. Han erroak, tradizio luze batekoak. Xiberotar batek hitz egiten dizularik beti badira aitatxi, amaxi eta aitzinagokoen erreferentziak. Nik ez dut horrelakorik. Hemen naizelarik, nire adineko gazteen artean, diferentzia handi bat sentitzen dut: Barkoxeko etxeen izenak ez ditut ezagutzen, esaterako, eta hori da ez garelako bertan erroak, nahiz eta onartuak eta integratuak bizi. Nire auzoko etxeak ezagutzen ditut, baina ez beste auzo batekoak Barkoxen. Behar dut sinadura—hemen erraten den bezala, familia izena—, eta oraindik ere...

Zuberoaren propaganda egin zuen zuberotar bertsolariak.

Orain irudi zait gehiegi egin nuela. Uste dut ez zela bortxaz beharrezkoa, zer en, berez,

"Hasi nintzenean kobla kantatzen ostatuan, gehienak aho zabalik geratu ziren, ez zekitelako zer zen hura. Inprobisatzen ikustea eta!"

Petit Gonzalo

"Aita artista dut, amak ere dohain ikaragarriak ditu, baina berak ez luke nahiko hartaz hitz egitea. Amari esker asko handitzen naiz, beti, oraindik ere. Aita artista izateak ekarri du gauza bat, ni bertsolari izan arte bederen. Ene lagunek, ni zirikatzeke, 'Gonzalo ttikia' deitzen zidaten, 'Petit Gonzalo'. Aski berezia da hori. Lapurdin egin ditut ikasketak, eta han edo nonahi, jendeak: 'A, Gonzaloren semea. Goraintziak aitari!' Berezia da hori".

Euskal Herrian norbait entzuten baduzu zubereraz ari, jadanik jendea harritzen da; erran nahi dut, Zuberoatik kanpo entzutean zuberera. Uste dut hainbeste egitea ere ez zela beharrezkoa azkenean. Orain ari naiz, hobeki pentsatuz. Baina bai aspertua naizela, eta garela asko, beti entzuten duguna entzuten: Zuberoa zer polita den, pastoralak, maskaradak, kantuak... Nahiz eta hemen sartzen den pertsona batek pentsatzen duen herri hau hila dela, guk badakigu batere ez dela horrela, eta jendea euskaraz bizi dela hemen ere. Bertsoak ongi erakusten du: gizartearen argazkia da bertsoa, eta Zuberoan ez balitz inor euskaraz bizi, ez litzateke bertsolaririk zubereraz ari. Ez da urtean behin egiten den gauza.

Esan duzu, "hemen bizi gara, ez gara hilak". Pier Paul Berzaizen kantuan: "Xiberoak zer duen gogoan, hiltzea, ala bizia" dut entzuna oraindik orain. Ez da Zuberoatik kanpoko euskaldunon ustea bakarrik. Zuberoatik bertatik kantatzen da gibelatzea. Eta Mauleko auzapez Mixel Etxebestek ere errana du ARGIA aldizkarian bertan: "Zuberoaren lehenbiziko problema da, bizitzea!" Hamalau mila lagun, heren bat euskaraz mintzo...

Oraindik ez gara hiltzorian, nahiz eta anitzek horrela erran. Ikusten dut nire belaunaldia -30 urtez beheiti-, eta ez da euskalduna, baina, irriskatuko naiz, eta erranen nuke gehien-goak ulertzen duela, eta sentibilizatua dagoela. Egia da ere, Santa Grazin erran zuten egiazko euskara eman behar zela. Erran zuten publikoki. Amorratzen nau horrelako ikuspegiak, zeren entzun dugu askotan, gure euskara, ikastolako haurrena ez dela egiazkoa. Zer erran behar da? Konplikatuégia da: ari gara hiltzen, eta gainera ez da ikastolarik behar ez delako egiazko euskara!

Eta zirimolan, 2010ean Xilaba txapelgoa, zuberotar gaztea bertsolari, lehenbiziko aldiz parte hartzen, eta finalera heldu. Amets Arzallusek

esana, "txapelketako ilusio injekziorik handiena" izan zintzaizkiola zu...

Baina bera da ilusio injekziorik iraunkorrena! Enetako gehiegi izan zen, kolpez. Nire helburu nagusia plazak ezagutzea zen. Plazak ezagutzeko txapelketa bat egin behar duzu, nahi ala ez, hor ikusten zaituztelako antolatzaile potentzialek, eta besteek. Pentsatu nuen txapelketan sartzea, giro hura maite ote nuen ikusteko; hori, hasteko. Eta ea ateratzen zen plaza pare bat gehiago urtean, zeren aritu naiz kantuz hiru bat aldiz urtean, ez gehiago. Eta bat-batean, finalean izatea, eta, gainera, xiberotarraren exotismoa... Gehiegi izan da.

Zer ekarri dizu gehiegizko horrek?

Plazak! Kar, kar, kar... Nahi nuena ukan dut, espero baino gehiago. Ez nuen sekula pentsatuko Bilboko bestetan, edo Iruñean, kantatuko nuenik. Eta hori pasa da! Baina nire aita bezalakoa naizenez, kontu guztiakin burua jaten... Duda anitz ukan nituen, adibidez, Bilbon: "Zertara joanen naiz ni Bilbora, xiberotarrez kantatzera?". Nik eman nuen irudiarakin, jendeak erraten zidan: "Bai, joan, segi xiberotarrez!", eta Bilbon kantatu nuen xiberotarrez, eta uste dut izan dela egin dudana pitokeriarik handiena bertso munduan. Itxura polita ematen du, baina jendea begira egoten da, ulertu gabe. Plazan baziren 200 pertsona edo horrela, zenbatek ulertu zituzten nire bertsoak? Eta bertsoa komunikatzeko da, mezua pasatzeko A-tik B-ra, mezua egokitu behar da errezibitzen duenari. Eta batuan kantatzen hasi naiz, eta batuan kantatzen dudanean ere bitxia zait. Eta ez dakit. Nik, berez, buruhausteak baditut biziaren edozein tontakeriarentzat, eta horrelakoetan, gehiago: ez dut argi ikusten zer ekartzen dioda

entzuleari, bertso maila horrek zer ekartzen didan. Baditut mila buruhauste! Kar, kar, kar...

"Bilbon kantatu nuen xiberotarrez, eta uste dut izan dela egin dudana pitokeriarik handiena bertso munduan. Itxura polita ematen du, baina jendea begira egoten da, ulertu gabe"

Ameriketara joan zinen, ihesi, zenbait plaza eta jaialdiri uko eginez.

Ameriketara joan nintzen, bai, baina ez ihesi. Aspalditik erabaki nuen joatea, txapelketa hasi baino urte bat lehenago gutxienez. Eskerrak joan nintzen Ameriketara finala eta gero! Uste dut handik bi aste-ra joan nintzela. Joateak lagundu zidan hankak guztiz lurrean ematen, han, Ameriketara, jende xumea, umila, borrokalaria ikusi nuen, eta lagundu zidan pentsatzen: "Finala izan da egun bat, handia niretzat, ez dut sekula ahantziko, baina nahi badut bertsolari izan, behar dut hasi nintzen bezala, osta-



tukoa izan, sinple-sinpleki, ez beste preten-
tsiorik ukan, zeren bertso munduan sortu
da elite bat, eta nik nahiz eta bertsolari
horiek maite ditudan, ez dut maite giro
hori.

**Bidaia, eta bidea, egin duzu: Kuba, Mexiko,
Guatemala...**

Argazkia egiten ikasi nahi nuen, berdin zen
nora joan, banekien ikasi nahi nuela, eta ez
dagoela beste biderik ikasteko: egun osoa
eman horri pentsatzen, argazki egiten. Bidaia-
ren birusa orain dela hiru-lau urte harrapatu
nuen. Andaluziara joan nintzen, bakarrik,
furgoneta batean, hiru hilabeterako. Beste
kulturak, beste jendea ezagutu nahi nituen,
neure burua ere hobeki ezagutzeko, eta nire
herria. Iruditzen zait Euskal Herria hobeki
ezagutzen dudala kanpotik ikusi eta gero.
Birusa... zaila zait esplikatzen. Badakit
lanean ari naizela, dirua baztertzen, beste
billete baten erosteko.

**Eginak dituzu, eta Interneten erakutsiak
bidaian eginiko potreta zenbait (<http://joanesetxebarria.blogspot.com>).**

Eta sarean segitzen dute, nahiz eta kenduak
ere baditudan asko. Momentuan egiten ari

Dudatu

"Aitak bizia ikusteko duen manera, artista batzuen
manera, oso interesgarria da. Nik berdin egiten dut. Gauza
askori mila itzuli ematen dizkiot, batzuetan gehiegi, baina
hala ere, nahiago dut gauzak gehiegi pentsatu, behin eta
berriz kuestionatu, egiten ari naizenaz dudatu, ezen ez eta
konfiantza gehiegi ukan, segur izan nire buruaz... Nire
aitaren artista izateko manierak eman dit hori.
Aberastasun gisa ikusten dut, ez bortxaz bide zuzena
hartzeko, baina konturatzeko balitekeela zerbait gaizki
egina dela".

AZKEN HITZA

"Beharrezkoa dea?"

"Jendearekin egoteko ez naiz izua.
Alderantziz. Baina igortzen didazularik
mail bat erranez elkarrizketa egin behar
didazula, hor bai, izua naiz, eta edozein
aitzakia asmatuko dut. Maddi Oihenart
elkarrizketatu dut berriki, eta hari ere
kostatzen zaio. Ni sutan jartzen naiz:
'Jendeak jakin nahi du zure iritzia, zer-
tan zaren'. Baina errazagoa da mikroa-
ren alde batean egotea, bestean baino.
Ni besteen hitzen lekuko izanez elika-
tzen naiz, besteen hitza hedatzen, eta,
bat-batean, niri iritzia galdetzea —nahiz
eta badudan iritzia— bitxia egiten zait.
Hortik heldu da 'elkarrizketa niri? Beha-
rrezkoa dea?'.

nintzena erakusteko jarri nituen sarean argaz-
kiak. Geroztik, hilabeteak pasatu dira eta
selekzioa egin dut. Uste dut hori dela zailena,
lanak selekzionatzea. Batzuk baino ez ditut
utzi sarean. Erakusketa egitea ari naiz pentsa-
tzen, baina zaila da hori ere. Aita artista dut,
badakit zer lan duen erakusketa bat munta-
tzen, badakit egin daitekeela nolanahika, edo
koherentzia batekin, eta koherentzia eta logi-
ka horren bilatzen ari naiz. Uste dut, azke-
nean, hango eta hemengo potretak ezarriko
ditudala erakusketan, baina hemengoak ez
ditut oraindik eginak.

**Bertsolaria, argazkilaria... Non da zure baitako
kazetaria?**

Kazetariak eta bertsolariak, biek bat egin
zuten liburuxka batean: egunkaria, bertsoz
idatzia. Kuban, lehen bi hilabeteen, ia egune-
ro idazten nuen, bertsoz. Gero, segitu dut
idazten, ez hain erregulariki, baina idazten.
Memoria txarra dut, eta bereziki hortakotz
egin nuen, idatzi, bertsoz. Baditut ere, publi-
katu gabeko erreportaje eta elkarrizketak
paperetan, hor nonbait gordeak. Hor dira.
Gauza batzuk behar dira digeritu. Lan
batzuek ez dute baliorik, ez dira publikatze-
koak, baina lehen kontaktu onak dira, bidaia-
tik itzuli eta hango errealitatearen ezagutza
minimoa eramanez dudalako, hobeki ezagu-
tuko dut hura. Pasta bildu dut. Ez naiz erraz-
ki joaten jendeengana, baina erranez kazetari
zarela egoten ahal zara jende
baten etxean elkarrizketa egiten,
publikatu edo ez. Hor ikasten da
asko. Horretarako egin nuen,
bereziki. ■

